Arreba galdu bat

Irati Arteaga

1945. urtean, Gipuzkoan, adopzioan emana izan zen emakume baten anaiaren biloba

Gipuzkoako familia batean izandako adopzio bizipena, bilobak aitonarekin izandako elkarrizketatik harilkatua:

Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak liburua eskuartean nuela jabetu nintzen nire aitona hor jaio zela, eta gure familiaren bizipen zati bat zegoela bertan. Nire aitonarekin solasaldi bat izan ondoren, hausnartu ahal izan genuen, duela 81 urte adopzioan eman zuten bere arrebaren inguruan eta gero horrek familian izan zuen eraginaren gainean. Politak izan ziren otordu baten bueltan atera zitzaizkigun gaiak eta gogoetak. Hitzak ateratzen joan ziren, poliki; batzuetan bultzatu gabe, beste batzuetan isiluneen bidez. Isilune horietan ere bazegoen zerbait.

Haurtzaroaz hitz egiten hasi ginen, lehenik. Etxeaz, bertako giroaz, gurasoez, anai-arrebez eta egunerokoaz. Ohikoa dirudi, baina urteekin gero eta urrunago geratzen da dena. Ez zitzaion irudi goxorik etorri burura. Kontrakoa. Baldintza zailetan bizi ziren, gela bakar batean gurasoak, anaia eta bera. Urte askoan horrela.

Auzoa du oroitzapenetan. Egun osoak kanpoan, lagunekin edota anaiarekin. Baratzetara joaten zen, janaria lapurtzera. Etxeko beharrak asetzeko eta amari zer jana emateko. Eskolan ere berandu hasi zen, irakurtzen eta idazten jakin gabe. Urte bakar batean bi ikasturte aurreratu zituen. Baina eskola ez zen beti lehentasuna, nahiago parkera joatea, Cristina Eneara.

Etxean, ordea, rola aldatzen zen. Etxeko nagusia zen. Bere anaia txikia zaintzen zuen, kalean alde batetik bestera eramaten zuen, bere modura.

Amaren irudia oso presente du beti: “Emakume langilea, gauero josten aritzen zena goizaldeko laurak arte, isilean, familiari eusteko”.

Familia, hala ere, ez ziren soilik laurak izan. Baziren beste istorio batzuk, beste anai-arreba batzuk, egunerokoan beraiekin bizi ez zirenak. Baina bazegoen bat, bereziki, inoiz benetan aipatu ez zena: arreba galdu bat.

Azalpenik gabe

Ez zen etxean inoiz kontatu. Ez zegoen azalpenik, ez testuingururik. Ez zuen bere amak inoiz aipatu. Isiltasun horrek ere forma bat hartzen du, badago zerbait, baina ez da esaten. Garai hartan, aitonak aipatzen zuen moduan, “oso normala zen”. Familien egoerak, pobreziak, gizartearen presioak… Askotan, aukerarik gabe uzten zituzten familiak.

Urte batzuk geroago iritsi zen arrebaren izena etxera. 2000. urtearen inguruan izan zen. Dei bat. Bere osaba: “Eseri Jesus, zerbait kontatu behar dizut. Extremaduran arreba bat duzu”. Hasieran, txantxa baten moduan hartu zuen aitonak: “Familia ikusita, edozer gerta zitekeen”. Baina barruan zerbait mugitu zitzaion.

Egun gutxitara, autoa hartu eta Extremadurara joan ziren. Atea jo eta ireki zuen emakumea ikusi zuenean, ez zuen zalantzarik izan: “Nire ama zen”. Haren antz handia zuen. Begirada, aurpegia, zerbait sakona, azaldu ezin zuena. Besarkadak eta hurbiltasuna izan ziren, nahiz eta denborak tarte handia utzia zuen bien artean. Ordutik aurrera, sarri joaten ziren bisitan. Harreman bat eraiki zuten, atzera egin ezin zuen denboraren gainetik.

Arrebaren bizitza ere ez zen erraza izan, adopzio bidezko aita hil zitzaion, eta amak bakarrik hezi zuen. Hala ere, bizitza “ona” izan zuela kontatu zien, bere modura egina. Familia biologikoaren bilaketa urte asko geroago etorri zen, bere seme-alaben bidez, Internet bidez, paper zaharren arrastoari tiraka.

Eta bada pasarte bat ia sinestezina. Urte askotan nire aitona bazkaltzera taberna batera joan zen, eta han arrebak hainbat urte egin zituen mahaiak

zerbitzatzen, baina ez batek eta ez besteak ez zuten elkarren berri. Istorioak, batzuetan, gurutzatu egiten dira; bazirudien bizitzak elkartu egin nahi zituela.

Arreba ezagutzeak ez zuen aitonaren ikuspegia aldatu. Berak bazekien bere familiaren istorioa nolakoa zen eta bere modura ulertua zuen. Baina izena zuen hutsune bati forma ematea ekarri zuen. Gaur egun, arreba ez dago, baina haren presentzia, bai. Oroitzapenetan, ilobetan eta bizipen guztietan.

Aitonari galdetu nionean zer esango liokeen arrebari, ez zuen hitz handirik erabili. Ez du behar. "Faltan sumatzen dugu", besterik ez. Eta familiari buruz galdetzean, erantzuna argi zuen. Bere familia gaurkoa da: bere emaztea, seme-alabak eta gu, bilobak. Gainerakoa ere familia dela badaki, baina urrunago sentitzen du, lotura bat badago, agian ez egunerokoa, ez ikusgarria, baina hor dagoena.

Agian horretan dago guztiaren pisua: familia ez dela beti hasieratik datorrena, bidean eraikitzen dena baizik. Eta, batzuetan, itzultzen dena ere bai.